



152/2020 EBAZPENA, martxoaren 2koa, Osakidetzaren Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez agintzen den Osakidetzaren webgunean argitara daitezela 2014ko aldi baterako kontratazioko behin betiko zerrendak, 3. lehentasunekoak, lanpostu hutsak eta ordezkapenak betetzekoak, Emergentsietako Ibilgailuetako Ofizial Gidaria lanpostu funtzionalerako (3. lehentasunekoak)

Osakidetzaren aldi baterako kontratazio-zerrenden sorrera eta kudeaketa Osakidetza Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren arabera arautzen da (EHAA 106 zk., 2011ko ekainaren 6koa).

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren urriaren 1eko 687/2019 Ebazpenaren bidez, Emergentsietako Ibilgailuetako Ofizial Gidariaren lanpostu funtzionalen izena emateko epea ireki zen (3. lehentasuna, 2014ko aldi baterako kontratazio-zerrendak).

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 17ko 875/2019 Ebazpenaren bidez, Osakidetzaren webgunean argitaratu ziren Emergentsietako Ibilgailuetako Ofizial Gidariaren lanpostu funtzionalen behin-behineko aldi baterako kontratazio-zerrendak, 3. lehentasunekoak, lanpostu hutsak eta ordezkapenak betetzekoak.

Behin-behineko zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Agintzea Osakidetzaren webgunean argitara daitezela 2014ko behin betiko aldi baterako kontratazio-zerrenda eguneratuak, 3. lehentasunekoak, lanpostu hutsak eta ordezkapenak betetzekoak, Emergentsietako Ibilgailuetako Ofizial Gidaria lanpostu funtzionalerako.

Zerrenda horiek 2020ko martxoaren 3an jarriko dira indarrean.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendariari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena Osakidetzako webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 2a.


Osakidetza
Maria Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS
IZ.: Maria Pilar Uriarte Brizuela

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA

